

HAUR-HEZKUNTZAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Jarduera didaktikoekin osatutako txostenaren bigarren zati hau ikasleek desnutrizioa jasaten duten milioika neska-mutilen errealitatea gertutik ezagutzeko planteatuta dago, ikasle bakoitzak bere inguruneari konta diezaion ekintza solidarioaren bidez nola lagunduko dien haur horiei.

Ikuspegi metodologikoa, beraz, beste errealitate batzuk EZAGUTU, bere ingurunean KOMUNIKATU eta EKITEA dira.

Helburu orokorrez eta espezifikoez gain, jarduera horiek eta ekintza solidarioak LOMLOE legean bildutako gaitasunak garatzen lagunduko diete:

HELBURUAK:

Ikuspegi hori gauzatzeko, ikus-entzunezko multzo bat aurkezten dizuegu, baita ikasleekin hainbat gai lantzeko pedagogia-proposamenak ere:

1. Gosea eta desnutrizioa ezagutzea
2. Auzi hori mundu-mailako arazo bihurtzen duten zenbakiak ulertzea
3. Ikasleak konponbide gisa jartzea munduaren aurrean
4. Desnutrizioa prebenitu eta harekin amaitzeko laguntza humanitarioa ulertzea

Kausa humanitarioak ulertzeaz gain, gizarte-kontzientzia lortzea ere landu dezakezue ikasleekin:

1. Enpatiaren, justiziaren eta bizikidetzaren balioak indartuz.
2. Ohitura osasungarriak eta janaria alferrik galtzearen aurkako jarrerak bultzatuz.
3. Bakearen eta gizarte-justiziaren aldeko kultura baten alde eginez.

EDUKIAK ETA PEDAGOGIA-PROPOSAMENA:

Jarduera hauek zuzenduta dagoen etaparen arabera bereizita daude. **Eskola-ordu bat edo bi erabil ditzakezue, hausnarketarako** prestatu ditugun bideoak erabiliz. 9 eta 16 urte bitarteko haurrei modu didaktikoan eta adin horretara egokituta desnutrizioa zer den, zein motatako desnutrizioak dauden eta munduan zenbat pertsonak jasaten duten azaltzen da, baita desnutrizioa prebenitzeaz eta sendatzeaz arduratzen diren pertsonak zein diren ere. Azkenik, zuen laguntzari esker, Save the Children-ek, bai eta beste lankidetzak-erakunde batzuek ere, nola jarduten duten azaltzen dizuegu xehe. Amaieran,

bideo osagarri bat edukiko duzue, non klima-aktibista gazteek gosea eta Somalia, Kenya eta beste herrialde batzuk gogor kolpatzen dituzten hondamendi naturalak lotzen dituzten.

Bestalde, gehiago sakondu nahi izanez gero, jarduerak egin ditzakezu, bideoak ikus ditzakezu eta ekintza solidario bat eginez amai dezakezue, ikasle guztien partaidetza eskatzen duen proiektu zabalago bat bihurtuz. Jarduera hauek modu independentean planteatzen dira, baina osagarriak dira, eta irakasleak elkarren artean koordina daitezke **hezkuntza-proiektu** bat bilatzeko.

“SENDATZEN DUEN ELIKAGAIA: TE.RA.PEU.TI.KO.A” 3-6 urte. 40 minutu

Helburuak

- Informazioa ematea eta bizimodu osasungarri bat izatearen beharraz interesa piztea.
- Berdinen arteko lankidetzak neska-mutil guztiek osasuna izateko duten eskubidearen alde.
- Komunitateko ekimenak bultzatzea haurrek nutrizioa eta osasuna izaten duten eskubidearen alde.

Gaitasunak

Jarduera honek harmonian hazteko garapenean (gizarte-elkarrekintzak ezartzea, norberaren gorputza ezagutzen jarraitzea eta sentimenduak adieraztea), ingurunea ezagutzen eta esploratzen eta errealitatea komunikatzen eta ordezkatzeko laguntzen du.

Metodologia

Ezagutzeko, komunikatzeko eta ekiteko proposamenarekin aurrera eginez, galdera-erantzunen bidez jakinmina piztu, sentimenduen adierazpena bultzatu, entzute aktiboaren dinamikak eta sormenezko horma-irudiak egin nahi dira taldean.

Materialak

- Ur-botila, esne-botila, fruta ale bat...
- Paper jarraitua
- Argizarizko pinturak
- Guraizeak
- Koloretako kartulinak
- Kola



Jardueraren garapena

Aurkezpena (10 min)

Irakasleak borobil bat egingo du gelan partaideekin, eta azalpen hauek ematen hasiko da:

“Bizitzeko oso garrantzitsuak diren elikagai batzuk ezagutuko ditugu.”

Ur-botila aterako du, eta galdetuko du: zer da?, elikagai bat da?, zuek ura edaten duzue?, zertarako balio du? Urak bizitzeko duen garrantzia nabarmenduko du.

Fruta alea aterako du, eta galdetuko du: zer da?, elikagai bat da?, fruta sarri jaten duzue?, garrantzitsua da osasuntsu hazteko? Bitaminen garrantzia aipatuko du.

Esnea aterako du, eta galdetuko du? zer da?, elikagai bat da?, esnea edan ohi duzue? Osasuntsu hazteko elikagai osasuntsuak jatearen garrantzia nabarmenduko du.

Ezagutu (5 min)

Ura eta elikagai osasuntsuak aurkeztu eta gero, irakasleak planteamendu hau egingo du: “Herrialde askotan, neska-mutilek ez daukate osasuntsu hazteko behar adina janari, eta horrek kezkatu egiten nau”. Ondoren, gelari galdetuko dio: zer gertatzen da janari osasuntsua falta denean?, zer gertatzen da behar adina janari ez dagoenean?, zer gertatzen da urik ez dagoenean?, gaixotu egiten gara?

Barneratu (5 min)

Behar adina janari eta janari egokirik ez dagoen herrialdeetan neska-mutil asko gaixo daudela

azalduko dio gelari. Baina badela energia asko duen TE.RA.PEU.TI.KO.A izeneko elikagai bat. Kakahuete-gurina, esnea eta bitaminak dituena.

Gelako neska-mutilei banan-banan TE.RA.PEU.TI.KO.A hitza silabaz silaba errepikatzera animatuko da. Haur guztiek hitza ahoskatu eta gero, zer esan nahi duen azalduko da... “sendatzen duen elikagaia”.

Haurren desnutrizioaren aurka bat eginik (20 min)

“Terapeutikoa” hitzaren esanahia ezagutu eta gero, “TE.RA.PEU.TI.KO.A” hitzari forma ematera gonbidatuko da taldea. Adinaren arabera, partaideek horma-irudiak egingo dituzten taldean, edo bakoitzak bere ebakigarriak erabiliko ditu.

Irakasleak “TE.RA.PÉU.TI.KO.A” hitza marrazteko eta ebakitzeko pistak emango ditu: ETXEAREN forma du elikagaiak osasuntsu gordetzeko, esnezko LEIHOAK ditu, kakahuetezko ATEA eta laranja TXIMINIA.

Diseinu guztiekin kartulinazko edo paper jarraituzko horma-irudi bat prestatuko da, alde aurretik, izenburu hau idatzita: “Sendatzen duen elikagaia: TE.RA.PEU.TI.KO.A”. Eta bertan, jardueran egindako diseinuak itsatsiko ditugu.

Horma-irudia egitea erabaki bada, erakusteko toki egoki bat aurkituko da, eta lagunei, ikaskideei, familiako kideei, herriari edo auzoari jakinaraziko zaio. Horretarako, erakusketa bat antola daiteke eskolan edo herriko beste txoko batean, haurren nutrizioaren eta haurren osasunaren alde laguntza eskatzeko.

Jarduera egiteko iradokizunak

Partaideen adinera egokitutako galderak eta jarduera plastikoak eginez indartu daiteke jarduera.

Ebaluazioa

Jarduera amaitzean, taldean hausnartzeko galdera batzuk egin daitezke:

- Gustatu zaizue egindako horma-irudia?
- Nola izena du ezagutu dugun elikagai berriak?
- Zein elikagai dira garrantzitsuak bizitzeko?